

b
BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
612. zkia.
XV. urtea
2007ko maiatzaren 4a

**Esti Gonzalez,** Mendaroko Alkatea

# «Egin beharrekoa ondo bete dugulakoan goaz»

[ **LUZEZABAL** ] OPOSIZIOKO ALDERDIEN BALORAZIOA • [ **KIROLA** ] JOSEBA ELUSTONDO

RENAULT servicios

Gelditu ez zaitezen mugitzen gara



MUNTATZEA ETA OREKATZEA DOAN

| NEURRIAK | MICHELIN | Continental | DUNLOP |
|---|---|---|---|
| 155/80 R13 79T | 52,23 € | 46,86 € | 46,33 € |
| 165/65 R14 79T | 68,66 € | 58,58 € | 56,92 € |
| 165/70 R13 79T | 64,77 € | 54,61 € | 54,38 € |
| 175/65 R14 82T | 78,88 € | 75,40 € | 71,34 € |
| 175/70 R13 82T | 66,14 € | 56,41 € | 53,30 € |
| 185/55 R15 82H | 122,86 € | 97,42 € | 111,90 € |
| 185/60 R15 84H | 114,26 € | 109,62 € | 97,44 € |
| 185/65 R15 88T | 92,13 € | 77,67 € | 76,45 € |
| 195/65 R15 91H | 107,88 € | 103,82 € | 98,60 € |
| 195/65 R15 91T | 102,59 € | 84,19 € | 85,74 € |
| 205/55 R16 91V | 149,35 € | 143,26 € | 146,16 € |
| 205/55 R16 91H | 159,09 € | 116,47 € | - |
| 205/60 R16 92H | 142,45 € | 140,36 € | 139,20 € |
| 225/45 R17 94V | 208,97 € | 196,08 € | 209,83 € |
| 165/70 R14C 85R | 109,62 € | 93,96 € | 99,76 € |
| 195/65 R16C 100T | 134,72 € | 131,08 € | 124,12 € |
| 225/65 R16 112R | 215,76 € | 161,24 € | 172,84 € |

www.mantenimiento.renault.es

Fidagarritasunak bide bat baino ez du

Orain, pneumatikoak aldatzean

OREKATZEA ETA LAN ESKUA DOAN.

"Eta oparitzat, R27"aren postera. Munduko txapelketa bi irabazi ondoren, Renault-ek beste aldi bati ekingo dio ING Renault F1 Team gisa R27arekin.

PNEUMATIKOEN 4X3 ESKAINTZA

MICHELIN

EXPO ZARAGOZA 2008

RENAULT

**AUTOBERRI**

Polígono Olaso, 17.- Tel. 943 74 27 55 - ELGOIBAR

ARRASATE - AZPEITIA - IRÚN - TOLOSA



# ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

***Ordenagailu bidez*** *teoria ikasteko gela berria* !



**ORDUTEGIA**

**10:00**etatik-**12:30**era

**15:00**etatik-**20:30**era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

# ZOZOAK BELEARI...



## Imanol Larrañaga

Uxue, Bilboko lagun bat bakarrik bizi zen eta boa txiki bat erosi zuen etxeko bakardadeari aurre egiteko. Urte batzuetara, neska batekin irteten hasi zen eta, handik gutxira, neska ere mutilaren etxera joan zen bizitzera. Hasierako bakardadeak hirukiaren forma hartu zuen.

Baina neska etxean sartu eta gutxira, boak jateari laga zion. Eta, egun batean, neska siestatik esnatu zenean, boa alboan etzanda eta luze-luze eginda zegoela ikusi zuen. Mutilak, boak jaten ez zuela ikusirik, albaitariarengana eraman zuen. Baina albaitariak ezin zion antzeman sugeak zergatik ez zuen jaten. Hala ere, kontsultatuko zuela agindu zion.

Handik gutxira, neska etxean bakarrik zegoela, albaitariak telefonoz deitu zuen lagunaren etxera. Neskak hartu zuen telefonoa, eta boa non zegoen galdetu zion albaitariak. Sugea egongelan zegoela erantzun zion neskak. Albaitariak, orduan, egongelako atea ondo itxi eta telefonora bueltatzeko esan zion: *"Badakit zergatik laga dion sugeak jateari; eta, badakit zergatik zegoen zure aldamenean luze-luze eginda: lekua egiteko laga dio jateari; eta ohean, berriz, zu irensteko zenbat leku behar zuen neurtzen ziharduen".*

Kontuz, Uxue. Maiatzaren 27a bitartean bi hankako suge mordo bat sumatuko duzu zure inguruan. Dagoeneko hauek ere hasi dira gure botoak irensteko neurriak hartzen.

> **«Maiatzean bi hankako suge mordo bat sumatuko duzu»**
> IMANOL

> **«Nahiago nuke demokraziak boa erraldoi baten forma balu»**
> UXUE



## Uxue Alberdi

Imanol, Printze txikia irakurri nuenetik izugarrizko beldurra diet sonbreiruei. Bai baitakit ez direla kapelak, elefante bat irentsi berri duten boak baino. Grazia egin dit kontakizunak, zurea irakurri baino bi egun lehenago kontatu baitzidan lagun batek istorio bera. Hark ere bazuen boa bat erosi zuen laguna, eta hari ere sugea luze-luze etzan zitzaion ohean: neskalaguna ez, kasu honetan bera irensteko.

Eta hauteskundeetara itzuliz... nahiago nuke demokraziak boa erraldoi baten forma balu! Izan ere, boak oso-osorik irensten du harrapakina: elefantea irentsiz gero, elefante itxurako sabela jarriko zaio; tximinoa irentsiz gero, tximino formakoa. Eta ondoren poliki egingo du digestioa... hurrengo hauteskundeak arte. Halako sistema bagenu, demokrazia boa erraldoi bat balitz, haren sabelera begiratu eta nork bere soslaia topatuko luke. Esango genuke: demokraziak irentsi nau, baina hor nago ni!! Tamalez, demokraziaren suge-mihiak ez gaitu denok ukitu nahi. Boa mizkina da. Zu bai, zu ez. Bere sabelaren formak ez gaitu guztiak islatzen. Sonbreiruaren barruan dagoen elefanteari zango bat falta zaio. Okerrena da, jaten dituenak jaten dituela, demokraziak ez duela forma aldatzen, ongi murtxikatzen baitu hauteslea irentsi baino lehenago. Herriaren forma behar luke demokraziaren sabel puztuak, baina, zoritxarrez, suge forma du: bere buruari zizta egin dion sugegorriaren forma.

> Ezer eskatzen ez duenak guztia espero du
>
> Jean Rostand

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Unibertsitatean ere AHTaren kontra!

AHT gelditu! Elkarlanaren ekintza eta ideietan oinarritutako unibertsitate taldetzat defini genezake AHT-AUT, Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Unibertsitate Taldea. Talde hau egitearen ideia Gasteizeko farmazia fakultatean sortu zen, ingurumen zientzietako hirugarren mailako jende multzo bati bururatu zitzaion, hain zuzen ere. Denborak aurrera egin duen heinean beste fakultate batzuetara zabaltzea lortu dugu. Orain, unibertsitateko jendearen informazio faltaz konturatu gara eta hori dela-eta, gure helburua epe laburrera informazio kanpainak egitea da kartel eta muralen bitartez. Ez zaigu inporta gure partaideen pentsaera politikoa edota egoera soziala, inporta zaigun gauza bakarra zera da: AHT gelditu nahi izatea. Hori baita gure helburua edozein pentsaera politikoren gainetik.

Ez zaigu bidezkoa iruditzen horrelako proiektu suntsitzaile bat aurrera eramatea gizartearen onarpenik gabe. Herritar gehienei arazo edota kalte handiak suposatuko dizkie eguneroko bizimoduan; izugarrizko zarata edota trenaren trenbidea eraikitzeko beharrezkoak diren egundoko lubetak, herriak bitan banatuz. Gainera, hori ez da larriena; izan ere, bizia eman digun ama lurra suntsitzeko helburua duen proiektua ematen du AHT-k. Izugarrizko kalteak suposatuko dizkio ingurumenari: hasteko, gure herrialdeko paisaia osatzen duten mendi gehienak zulatu beharko dira trenaren mugikortasun murriztua dela-eta. Jarraitzeko, modan jarri diren energia aurrezteko iragarkiei aurka eginez izugarrizko energi kontsumoa suposatuko du, garraiobideen artean bigarren kontsumo handiena hegazkinaren atzetik. Beste hainbat kalte suposatuko dizkio naturari baina gehiegi luza gintezke. Orokorrean, gure ondorioa zera da: beharrezkoa ez den erosotasun bat eraikitzen ari direla gure herri menditsu honetan, gure paisaia suntsituz.

Bestalde, badago kaltetua irtengo den beste eremu bat, ekonomia. Izugarrizko dirutza xahutu dute herritarren zergetatik baina trena Euskal Herriko jauntxoen mesederako eraikiko da, herritarrak kontuan hartu gabe. Horretaz gain, nekazaritzako aurrekontutik hartu dute dirua nekazariei kalte-ordainak ordaintzeko; nekazaritzarekin zerikusia ez duen proiektuak sortutako kalte-ordainak, hain zuzen ere. Nekazaritzak ere bere kalteak jasango ditu. Nekazari askoren lurrak trenbidearen erdian geldituko baitira, askok bere balio edota beraien emankortasuna galduz. Hau dena gutxi ez balitz, Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako zortzi lursail txikituko ditu.

Azkenik, Italiako Val de Susan gertatutakoa aurrekaritzat hartuz AHT gelditzea posible dela ikusi dugu. Ez behin betiko baina bai herritarrei hausnartzeko denbora emateko lain. Italian izugarrizko jendetzak egin zion aurre proiektuari. Horregatik da hain garrantzitsua jendea kalera atera dadin proiektu hau salatzera. Italian mota guztietako jendea irten zen; zahar eta gazte, gizon eta andre. Horrela, lortu zuten bertako AHT gelditzea eta horrela lortu nahi dugu guk ere hemengo proiektua gelditzea. Beraz, hemendik informatzera animatzen zaituztet eta gero egin behar diren kalteen inguruan hausnartu. Italian posiblea izan bazen hemen posible izango da jendearen indarrak batzen badira. AHT-rik EZ!!!

**AHT-AUT**
**Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Unibertsitate Taldea**

## Etxebizitza eskubidea da

Elgoibarko gazteontzat etxebizitza lortzea ia ezinezkoa den bitartean, Elgoibarren 600 etxe huts daude. Gaur egun eskubidea dena, luxu bilakatu dute, jabetza pribatuaren izenean gure eskubiderik oinarrizkoena lapurtu, eta hori gutxi balitz, BOE zozketen bidez eskubide bat nola zozketatzen duten ikustera behartzen gaituzte. Sozietate Kapitalista inposatu digute, eta gu, gazteok, prekarietatean bizitzera kondenatu gaituzte, izan ere, gaur egungo maileguak edo eta alokairua ordaintzeko zenbat gazte elgoibartarrek sartu behar dituzte ordu estrak? Edota, zenbatek konformatu behar dute lan-baldintza txarrekin?

Bien bitartean etxebizitzaren negozioarekin PNV, banketxeak eta inmobiliariak nola aberasten diren ikusten ari gara. Nahikoa dela esateko ordua iritsi da, gazteok gure eskubideak defenda ditzagun, etxebizitza eskubidea delako eta bizi-baldintza duin batzuen alde, hilaren 10ean, iluntzeko 19:00etan enkartelada egingo dugu Plaza Handian.

**A.L**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b] barren
Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com
Argitaratzailea: ELGOIBARKO IZARRA

ZUZENDARIA Enrique Bert KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga PUBLIZITATEA Eider Iriondo MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.630 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## KEXAK

• Erretxindiko zubiko barandaua ugertuta dago: "Arregitorretik Erretxindira doan zubia egoera nahiko kaskarrean dago. Barandaua erabat herdoilduta dago. Urte asko dira azkenekoz margotu zutenetik, beraz, dagokionari barandau hau berritu edo txukuntzeko eskatu nahi nioke."



## TXALOAK

• Txalo bero bat Morkaiko Mendizale Elkarteari: "Oraingoan ere asmatu duzue, benetan, lan ona egin duzue mendi emanaldiak antolatzen. Emozionatuta atera naiz orain arteko saioetatik, eta hurrengoetan ere, ez dut hutsik egingo, ahal badut behintzat. Irudi ikusgarriak, musika bikaina eta hizlariak primerakoak. Jarraitu horrela, gazteak!".

• Txalo bat Gaztedia Sailari drogomenpekotasunari buruzko hitzaldia antolatzeagatik: "Aiora Perez psikologoak hitzaldi interesgarria eskaini zuen asteazkenean. Ez da hau izan Gaztedia Sailak antolatzen duen lehenengo hitzaldia, eta espero dugu azkena ez izatea. Seme-alaba gazteen gurasoak kezka ugari ditugu, eta honelako hitzaldietan gauza asko ikasten dira. Gainera, norberaren esperientziak beste gurasoekin konpartitzeko aukera ematen du. Oso aberasgarria izaten da".

• Erabilitako olioa jasotzeko kamioia goizez bakarrik egoten da: "Hilean behin etortzen da erabilitako olioa jasotzen duen kamioia Elgoibarrera, hilabeteko hirugarren ostiralean, hain zuzen ere. Baina goizez bakarrik egoten da. Nik goizez lan egiten dut, eta ni bezala, beste jende mordo batek. Eskatu nahiko nioke Udalari zerbitzu hau hobetzeko, eta arratsaldez ere olioa jasotzeko. Edo beste lekuren bat jartzea goizez Plaza Handira joan ezin garenontzat. Mila esker.".

• Madalatik King-Kong-eko autobus geltokira joateko bidea oso egoera txarrean dago: "Jende asko joaten da autobusa hartzera King-Kong-era errepide aldameneko bidetik, eta ez dago batere ondo. Harri mordoa dago, hankapeak ere mindu egiten zaizkigu eta euria egiten duenean ur putzu handiak sortzen dira. Bidea egokitzeko premia handia dago".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT



# URRUZUNOREN luma

## Maiatzeko loreak

Landareek loreak garatzen dituzte. Handiak, txikiak, bakartiak, taldeka antolatuak, txuriak, moreak... Berdin du, edozein metodo da egokia haziak sortu eta espeziearen dibertsitate genetikoa zabaldu eta biziraupena bermatzeko. Landare askok bernalizazio izeneko prozesu bat beharrezkoa dute loratzeko. Hau da, aldi bateko hotza beharrezkoa dute loraketa aurrera eramango duten mekanismoak aktibatzeko. Fotoperiodizitatea ere ezinbestekoa da prozesua aurrera eramateko, gauak iraupen jakin bat izatea beharrezkoa da loraketa aktibatzeko, alegia.

Negua pasa da, egun hotzak pasa dira eta bernalizazioa gertatu da. Udaberriko landareak aktibaturik daude, loreak sortzeko prest. Fotoperiodo kritikoa maiatzaren hasiera honetan dute gure inguruko landareek. Era guztietako infloreszentziak eratuko dituzte orduan: bakartiak, galburu edo matsalko erakoak, kolore guztietakoak. Eta guztiok harriturik utziko gaituzte kolore, forma eta ehundura horiekin.

Lore gehienek, ordea, hilabete gutxitako bizitza izan ohi dute. Ugalketarako baldintza egokiak desagertzean usteldu egingo dira, humusa eratuko da eta karbonoaren zikloak bere bidea jarraituko du. Eta guk, inozenteok, landareak ureztatzen jarraituko dugu.

*Antton Alberdi*

[ ZORTZIKO TXIKIAN ]

## ANE AGIRREGOMEZKORTA

LAZTANA DENDAKOA



**• Neskentzat jantzi arrosak eta mutilentzako urdina?**
Batzuk oraindik jarraitzen dute hori, baina gero eta kolore gehiago eramaten dira.

**• Umea jaio aurretik etxean eduki behar diren elementuak?**
Kotxe-silla eta sehaska oinarrizkoak dira. Gainontzekoa gero ere erosi daiteke.

**• Zure ustez, zein da umeak edukitzeko adinik onena?**
30 urte inguru hori adin ona da, baina norberak erabaki behar du noiz den momentua.

**• Zenbat txupete mota daude?**
Mordo bat! Orain argia duen txupete bat atera dute.

**• Kotxe silla modernoak ala klasikoak?**
Modernoak, jendeak modari jarraitzen dio.

**• Zein kolorez margotu behar da umearen logela?**
Denetarik dago, baina kolore biziak asko erabiltzen dira: berdea, naranja...

**• Umea negarrez hasten denean, isiltzeko sekreturik ba al dago?**
Liburu bat badago, batzuk funtzionatzen duela diote.

**• Amak ala aitak etortzen dira gehiago dendara?**
Amak, dudarik gabe. Batzutan elkarrekin ere etortzen dira, baina gure bezeroak amak dira.





Munduko edozein tokitatik ikusten da Elgoibar

www.elgoiBARREN.net

Elgoibarko berri izateko beste modu bat.

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

## [AKORDATZEN NAIZ]



### MANOLO UNZILLA
1924an jaioa

# «Futbola ala pelotia?»

Hainbeste ordu futbolakin galtzigatik ere taillarreko ugazabak esan zidan futbola edo taillarra? Dana laga naban. Gero direktibo ere egon nintzan, presidente eta dana. Hor ibili eta gero gogorra da lagatzia. Entrenadore nintzala eruan nittuan Plaza Txikittik pare bat jugadore Elgoibarrerako. Gainera bat internazionala izan zan, Sol. Plaza Txikittikan eruan genduan jubeniletara eta jubeniletan ezin zaban jokatu 14 urte zakazelako eta 15 bihar ziran. Eta bera zan onena danetatik! Neuk jantzi niozen lehenengo botak kanpo futbolian.

Pena haundixena pelotia izan da. Pelotan ere gustura eingo nuke, baina futbola beti izan da tendentzia. Neri esaten zien beti Barberito, adarra jotzen zien. Arratoia izan naiz betiere, aurrelari.



Kasualidadia, gero Barberito pelotarixakin soldadutzan egon nintzan. Bertan jolasian egitten genduan kuarteleko frontoian. Orduan nerekin zaguan soldadu azkoittiar bat, Larrañaga, "Xeme". Pelotarixa zan orduan eta ona. Bixok Barberiton kontra jokatzen genduan, baina haura zan fuera de serie. Pelotia lagatzen zaban beti pegauta. Sekulakua zan eta mutila jatorra. Gero Logroñora etorri zan hasi zan firin-faran, golferixan, hasi zan eraten, gabian ertetzen eta haretxek izurratu zaban. Mutila jatorra eta majua zan etorri zanian eta gero egunero gaberdixan kalian, zihero-zihero golferixan sartu zan.

## [GURE BERBAK]

### *Fonologia (7): bustiduria III*

Aurreko bi astietan esan gendun badabala indarra bustiduriak Elgoibarren, baiña, batetik, mendebalderago gehixago, eta, bestetik, gaur egunian indargaltzen ari zala, poliki-poliki bada ere, gaztien artian. Esan gendun kaletarren artian -ITX- ahoskeria ([aitxa], [ditxu]...) sartuta zaguala, eta basarrixetan geratu dala batez ere -ITT- ahoskeria ([aitta], [dittu]...). Gaurkuan, amaitzeko, aditzian gertatzen dan bustidura berezi bat ekarriko dogu lerro hónetara, gure baillarako berezko-berezkua dan bustidura bat.
Ezezko *EZ* partikulia *J-* hasieria deben aditzekin juntatzen danian, txistukari busti baten ahoskera gertatzen da:

*-Z + J- ➠ -TX-*

Adibide batzuk ekarriko dittugu, hobeto ulertzeko:

*ez jako jausi ➠ [etxako jausi]*
*ez jata etorri ➠ [etxata etorri]*
*ez jakan arrazoirik ➠ etxakan arrazoirik]*
*ez jone esan ➠ [etxone esan]*
*ez juek esan ➠ etxuek esan]*

Arau hau beti bete debe gaur egun arteko elgoibartarrak, sistematikoki bete ere; gaur egun, baiña, gaztien artian indargaltzen hasitta dago. Arrarua da 40 urtetik beherakoei holako formak entzutia, (*[ez jata], [ez jako]*... eta horrelakuak dira nagusi hórren artian).

*Jesus Mari Makazaga*



## ESKERTZA

2007ko apirilaren 21ean hil zen
***Perfecto Babarro Conde**ren* sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



2003-2007

# OPOSIZIOAREN BALORAZIOA

*Udal Gobernuaren balorazioa egin ondoren, oposizioko alderdiekin egon gara. Einbiouko Iñaki Odriozolak, Ezker Batuako Unai Zulaikak, PSE-EEko Ovidio Campellok eta PPko Iñigo Arkauzek 4 urteotako balorazioa egin digute. Udal Gobernuaren alde onak eta txarrak aipatu dizkigute ondorengo orrialdeetan.*



## IÑIGO ARKAUZ PPko zinegotzia

## «Gehiengo absolutuarekin agintariek nahi dutena egiten dute»

**1. Zertan asmatu du Udal Gobernuak eta zeintzuk izan dira bere akats nabarmenenak?**

Udal Gobernuaren alderik txarrena erakutsi duen prepotentzia, txuleria eta negoziazio falta izan da. Hori izan da grabeena. Merkadilloaren gaia izan da legealdi honetako izarra, baina beste gai batzuekin ere, jarrera bera erakutsi du Udal Gobernuak.

Orokorrean, transparentzia falta nabarmena izan da. Adibide bezala, merkadilloaren asunto honetan, oposizioko alderdiak gai guztia erabakita zegoenean jakin genuen. Leku aldaketa egitea erabakita eta prentsan aterata zegoen guk horren berri izan genuenerako. Hori da gauzak nola ez diren egin behar erakusteko adibide garbi bat. Herriarentzat horren garrantzitsua izan den erabaki baten berri modu horretan jasotzea lotsagarria da. Harrituta geratu ginen, ezin izan genuen iritzirik eman, eta ez genuen aportaziorik egiteko aukerarik izan. Niretzako jarrera hori izan da tristeena. Oso prepotente eta txuloak izan dira. Alderdi Popularrarekin ez dute inolako komunikaziorik izan lau urte hauetan.

Alde onak ere izan ditu, gauza batzutan asmatu dute. Hirigintzako aspektu batzuk aipatu daitezke: Madala 1 eta 2 zonaldeen berrikuntza, Alde Historikoa oinezkoentzako jartzea garrantzitsua da, Ongizate Sailaren zerbitzua hobetu egin da, aparkalekuaren arazoari irtenbidea ematen saiatu dira, kirol instalazioak hobetu egin dira; Mintxetako igerilekuak esate baterako...

**2. Zein da Udal Gobernuaren lanaren zure balorazio orokorra?**

Gauza onak egon direla aipatu dut, baina orokorrean, Udal Gobernuaren lana nahiko negatiboa izan da legealdi honetan. Batez ere, beraiek nahi duten guztia egin dutelako inoren iritzia kontuan hartu gabe, eta oposizioaren hitza entzun gabe. Hori izan da alderik txarrena.

**3. Zeintzuk izan dira zure alderdiak izandako ekimen garrantzitsuenak?**

Gauza asko egin ditugu. Garrantzitsuenen artean, gazteria sailean egin ditugun proposamenak izan daitezke. Boteiloiari behin betiko amaiera eman eta arazo hau guztia konpontzeko helburuarekin proposamen interesgarriak egin ditugu. Bestalde, Elgoibarren dagoen aparkaleku arazoari irtenbidea emateko proposamena egin dugu; Plaza Txikian lurrazpiko aparkalekua egiteko azterketa bat egitea proposatu genuen, aurrekontuetan ere proposamen interesgarriak egin ditugu, Udaleko langileen formazioan hobetzeko beste hainbat proposamen, alderdi politikoen aldetik herritarrenganako arreta hobetzea proposatu dugu, eta badirudi azken momentuan zerbait hobetu dela... Batez ere, hirigintza eta ekonomia alorrean, herriarentzako egokiak ziren proiektuak babestu ditugu. Oposizio kritikoa baina eraikitzailea izan gara.

**4. Zein da oposizioaren lanaren balorazioa?**

Oposizioak lan ona egiten du, baina ez da kontuan hartzen, Udal Gobernuak %90ean nahi duena egiten du, beraien proposamena egin eta gehiengoa daukatenez, beraiek hartzen dituzte erabakiak. Hala ere, guk egin ditugu proposamenak, txarrak direnak kritikatu egin ditugu, baina egokiak direnak ez. Batzuk hartu dituzte kontuan, baina oso gutxi. Udal Gobernuak gehiengoa daukan udaletxean oposizioa bigarren mailan geratzen da eta agintariek nahi dutena egiten dute.



## OVIDIO CAMPELLO PSE-EEko zinegotzia

# «Udal Gobernuak ez du herria aditu, ezta oposizioa ere»

**1. Zertan asmatu du Udal Gobernuak? Zeintzuk izan dira akats nabarmenenak?**

Elgoibartar sozialistontzat, Udaletxeko Gobernu taldeak legealdian zehar, ez du ezer berezitan asmatu. Beharbada, zerbait nabarmendu beharko balitz, ekonomiaren kudeaketa orokorra izango litzateke.

Akatsei dagokionez, berriz, dudarik gabe, hainbat azpimarratu ditzakegu:

• Gobernuko bileretan oposizioari parte hartzen ez utzi izana; ezta soilik ahotsarekin ere.

• Aktibaz eta pasibaz merkadilloa herri erdigunean mantentzea eskatzen zuten herritar gehiengoaren iritzia ez dute entzun ezertarako ere.

• Euro pila bat gastatu dute aparkaleku bat egiten, beharrezkoa ez den leku batean eta merkadilloaren toki aldaketa justifikatzeko. Egoskorkeria hutsez mantendu den erabaki hau, Elgoibarren EAJk agintzen duela eta beraiek nahi dutena egin dezaketela, erakusteko izan da.

• Sigmako aparkalekuan gastatu den dirua, Plaza Txikian lur azpiko aparkalekuak egiteko erabili behar zela uste dugu sozialistok.

• Herrian sindikatuak ditugula eta beraiekin batera, langabeziaren arazoari irtenbide bat topatu behar izateaz, guztiz ahaztu dira.

• Ez dute ezer ere egin nahi izan, gure herrian terrorismoaren biktima izan diren herritarrak gogoratzeko.

**2. Udal Gobernuaren lanaren balorazio orokorra?**

Zalantzarik gabe, ezkorra. Aurreko gobernuetako taldeek ezarritako gidoi berak jarraitzera mugatu dira, posizio are autoritario eta agintzaileago batetik. Ez dute herria aditu, ezta oposizioa ere. Uste dugu jarrera hau, hainbeste urtetan agintzen egon ondoren, eurek nahi dutena egiteko eskubidea dutela pentsatzera eraman izanaren ondorioa dela.

**«Beharrezkoa den auzoetan eskailera mekanikoak proposatu dugu»**

**3. Zeintzuk izan dira zure alderdiak izandako ekimen garrantzitsuenak? Zein da zure lanaren (eta oposizio osoaren) lanaren balorazioa?**

Legealdian zehar, gure alderdiak aurrera eramandako ekimenak orokorrean, herritarrek beraiek aipatzen zizkiguten hainbat proposamen udaletxean aurkeztea izan da, beti ere, gure ahalmenen baitan. Proposamen horietako batzuk, honakoak izan dira:

• Eskailera mekanikoak jartzea, beharrezkoa den auzo guztietan

• Plaza Txikian lur azpiko aparkalekuak egitea.

• Merkadilloa herri erdigunean mantenduaraztea.

• Industria poligono guztietan oinezkoentzako igarobideak jartzea.

• Madalako errotonda erdia, errotonda oso batengatik ordezkatua izatea.

• Lurretan inbertitu, etxebizitza sozialak eraikitzeko.

• Gazteei zuzenduriko aisialdirako espazioak.

Orokorrean, Elgoibartarren planteamenduak aintzat edukitzera zuzenduriko, udaletxe parte hartzaileago eta harkorrago bat egiten saiatu gara.





## IÑAKI ODRIOZOLA Einbiouko zinegotzia

# «Einbiourentzat oposiziorik gabeko Udala izan da, Batzoki bat»

Lehenik eta behin esan behar dugu Udal hau ez dela demokratikoa izan. Arrazoia sinplea da: Udal honen eraketak ez du herritarren nahia islatu. Einbiouk Udaleko bigarren indarra izatea lortu zuen, baina PNVk eta EAk, zinegotzi bana lapurtu zioten. Kale gorrian utzi gintuzten.

**1. Zertan asmatu du Udal Gobernuak? Zeintzuk izan dira akats nabarmenenak?**

Udalaren lanari dagokionez, gure diagnostikoa garbia da: jarrera aldetik, Udal hau iluna, klientelista eta autoritarioa izan da. Ez dute herritarrekin ezer jakin nahi izan. Despotismoaren eredu izan dira: garaiko Jauntxoak lez, ustez herriaren onerako, baina herria kontuan hartu gabe. Erabakiak hiruren artean hartu dituzte, planifikazio falta nabaria egon da, informazioa kudeatzen erabat opakoa izan da. Gaien lanketari dagokionez, Udal hau neoliberala, eskuinekoa izan da, konstruktore eta enpresarien menpekoa. Eraikuntza masiboa eta neurrigabekoa izan da. Batetik, etxebizitzen inguruko espekulazioa bultzatu du. Bestetik, gune industrial erraldoiak planteatu ditu. Plan eta proiektu guztiak, plangintza orokorretik kanpo egin dira. Arau subsidiarioak, 1992an egindakoak, zaharkituak, ez dituzte aldatu nahi izan. Nabarmena izan da, era berean, arlo sozialarekiko, herritarren beharrekiko sentsibilitate falta. Ekipamenduei buruzkoa agerikoa da: arazo larriak dauzkagu kiroldegian, zaharren egoitzan, eguneko zentroan; frontoiaren auzia ere hor dago; aparkalekuekin, eta mobilitatearekin zer esanik ez, barrera arkitektonikoak nonahi., bide gorririk ez dago, bidegurutze arriskutsuak, paseatzeko, errepideetan ari dira herritarrak... Eta, ongizatea ere, erabat utzita izan dute. Irizpiderik gabeko jarduera izan da. Berdin, beste arlo guztietan, kultura, kirola, emakumeen arloan, euskaran...



> «Plaza Txikiko aisialdi gunearen alde ere egin dugu lan»

**2. Udal Gobernuaren lanaren balorazio orokorra?**

Oro har, gure balorazio orokorra txarra da. Udal hau oso eskasa izan da eta oso kaltegarria herriarentzat, gure ustez.

**3. Zein da oposizioaren lanaren balorazioa?**

Einbiourentzat hau oposiziorik gabeko Udala izan da, Batzoki bat. Nahi izan duten guztia egin dute, eta ez zegoen inor egin dituzten astakeria, gehiegikeria eta hanka sartzeak barrutik salatzeko. Oposizio bakarra gu izan gara, eta kaletik egin behar izan dugu.

**4. Zure alderdiak egindako ekimen garrantzitsuenak?**

Einbiouk, Udaletik kanpo izanda ere, ekimen eta ekintza asko egin ditu, ez guk nahi beste. Badakigu askoz gehiago egin zitezkeela. Batez ere, orain lau urteko Herri Programak markatzen zituen lehentasunak azpimarratzeko, sozializatzeko, eta Udalaren jarrera eskas hauek salatzeko egin dugu lan. Udaletik kanpo egonik askotan ikusi ez den lan eskerga egin dute gure lan taldeek: Ongizate arloan, Euskarari buruz, Hirigintza aztertzen, Plaza Txikiko aisialdiaren alde... Euskararen inguruko taldeekin, gazteekin, herri mugimenduekin, dendari eta tabernariekin aritu gara, auzo eta herritarrengana jo dugu beharrezkoa zenean... Kalean lana egiteak dauzkan murriztapenak gainditzen saiatu gara, eta, arlo batzuetan lortu ez badugu ere, beste gai batzuetan herriarengana heldu garela uste dugu, gure gaiak hor egon dira, herritarren ahotan. Aldi berean, gure mugak onartuz, herritarren nahiak gizarteratze lanean ere aritu gara, eta eurekin bat eginda, baliabideak izanda, Udalak ez duena egin, lan egin dugu.

Orain heldu da, berriz ere, hauteskunde garaia. Ezker abertzalea, herritar sektoreekin Herri Programa berria eratzen ari da. Udalak demokratizatuko diren desioaz ari gara, berriz ere, Udal ez demokratikorik ezin daitekeelako onartu. Eta Elgoibarrek eraberritu beharra dauka, zalantzarik gabe. Ezker Abertzalea prest dago, elgoibartarren onerako lanean jarraitzeko. Aukera dezala herriak, alkate onena herria baita. Nork dio beldurra herritarren ahotsari?



**UNAI ZULAIKA** EBko zinegotzia

# «Herritarren partaidetzarik ez egotea izan da Udal Gobernuaren akatsa»

**1. Zertan asmatu du Udal Gobernuak? Zeintzuk izan dira akats nabarmenenak?**

Ezinbestekoak ziren ekimen txikietan asmatu du; herritarren eguneroko bizitza arrunterako beharrezko gauzetan partxeak jarriz: parkeak jarri, loreak ipini, hormak margotu... Akatsak, berriz, ugariak izan dira:

• Euren proiektuak aurrera ateratzeko garaian, herritarren partaidetzarik ez egotea, nahiago izan dute.

• Aurrekontuak prestatzeko, aurkezteko eta onartzeko moduan, epe txikiak eskaini dituzte, eztabaida eta aportazioetarako.

• Merkadilloaren gainean, esan, kapritxoa eta proiekturik gabeko erabakia izan dela; kritiken arabera aldatzen zena eta 110 milioi pezetako kostua suposatu duena.

• Ordenantzei dagokionez, gehiengo absolutua erabiliz, Legea euren alde izateko ordenantzak egin eta onartu dituzte.

• Kiroldegiko gestioak 0 bat merezi du: noren esku utzi dute? Zergatik?

• Madalako errotonda hobetzeko asmorik ez dago. Ezta, zaharren egoitza berri bat egiteko intentziorik ere.

• Larunbatetako arazoari irtenbide bat emateko asmorik ere, ez dago.

• Musika Eskolaren inguruko mamu hotsak ere, hor daude eta azalpenak emateko borondate falta dago.

• Mintxetarekiko kexak, igerilekuko zelaiaren egoera eta ordutegia dela-eta, ez da konponbiderik eskaini.

• PNV-EA, udal gobernu honi kritika egiten dion edozein pertsona, alderdi edo kolektibori gerra deklaratzen dion gobernua dugu, mehatxuak, epaiketak eta presioak erabiliz.

Laburbilduz, PNV-EAk eduki duen jokabide prepotenteaz kexu gara: "herritarrek lau urtetik behin bakarrik baitute erabakitzeko eskubidea ".

**2. Zein da oposizioaren lanaren balorazioa? Zure alderdiak egindako ekimen garrantzitsuenak?**

Gure ekimen garrantzitsuenak:

• Merkadilloaren inguruko lau mozio.

• Euskararen eta autodeterminazioaren aurka egiten duen europear konstituzioaren kontrako mozioa.

• Pobrezian dirauten herrialdeei, aurrekontuetako %0,7 ematearen aldeko 2 mozio.



**«Merkadilloaren gaia kapritxoa eta proiekturik gabeko erabakia izan zen»**

• Aurrekontuetan, Elgoibarren hutsik dauden etxebizitzen zenbaketa egiteko diru partida bat zabaltzea.

• Elgoibarko Makina Erremintaren museoarekin kolaborazio hitzarmenaren aldeko mozioa.

• Industri guneetara oinez eta bizikletaz joateko beharrezkoak diren azpiegiturak sortzeko mozioa.

• Aurrekontu partizipatiboak egiteko araudia sortzearen aldeko mozioa.

• *Einbiou* plataforma ilegalizatuari mozioak aurkeztu, euren hitza entzun dadin.

• Elgoibartar guztiok udaletxeko batzar ezberdinetan parte hartzeko eskubidea aldarrikatu.

Kalean egindako lana:

• Herritarrekin egon, beharrak entzun eta laguntza eskaini.

• Elgoibartarrez osatutako zerrenda aurkezteko genuen xedeak bultzaturik, eginiko kale lana eta Ezker Batua-Berdeak zein Aralar koalizioa Elgoibarren adosteko eta indartzeko beharrezkoak izan diren batzarrak egitea, bi kasuetan bere fruituak emanez.

• Batzarrak egin ditugu herri eta instituzio ezberdinetako teknikariekin, Elgoibarren proiektu berriak abian jartzeko aukerarik dagoen jakiteko.

Nahiz eta egia izan, 4 urtetan 3 zinegotzi izan ditugula, egindako lana ona izan dela uste dugu, hiruren artean finkatu baitute oraingo proiektua, unean uneko arazoei eta udaletxearen jarrera itxiari aurre egiten zioten bitartean.

Oposizio osoak, Udal Gobernuarekin eduki duen harremana kontuan izanik, ez dugu nahi inoren baloraziorik egitea, herritarrei dagokie hori egitea. Gure aldetik garbi eduki dezatela lanean jarraituko dugula, herriari eskaintzeko asko dugu-eta.

## [ PROTAGONISTA ]

### HaizeaTaldea

Elgoibarko Haizea Emakume Taldeak 10 urte bete ditu aurten, eta datorren barixakuan, maiatzak 11, egingo dute ospakizun ekitaldia. Iluntzeko 20:30ean luntxa eskainiko dute Kultur Etxeko sotoan, taldeko bazkide eta gonbidatuentzat. Gaueko 22:00etan "La espera" antzerkia izango da bertan. Emakumeen aldeko mugimendua Elgoibarren 1976an hasi zen. Garai hartan talde moduan antolatzea zaila zen, beraz, etxekoandre talde bezala biltzen ziren Ubitarten. 1997an berrantolatu zen taldea. 10 urte beranduago, Haizeatik ekintza mordoa egin dira emakumeen alde.

## [ NOTIZIA ]

# Merkadilloko saltzaileek euren salmentak %70ean jaitsi direla salatu dute

Merkadilloa Sigmako aparkalekura lekuz aldatua izan zenetik, 10 hilabete pasa dira, eta atzo saltzaileek euren egoeraren balorazioa egin zuten. Postuetako saltzaileek jakinarazi zutenez, euren salmentak %70ean gutxitu dira. Herritarrak ez dira apenas merkadillora joaten. Hasieran, aurreneko hilabetean jendea joaten bazen ere, bigarren hilabetetik aurrera apenas ibiltzen da jenderik. Gainera, bertaratzen diren bezero apurrek herritarrek ez dutela haraino joan nahi diote: "zerbait egin behar dugu, horrela ezin dugu jarraitu". Gaur egun, 32 postu inguru daude Sigmako aparkalekuan eta guztiek aho batez irtenbideren bat eskatzen dute "balioanitzeko espazio honek ez duelako ezertarako balio izan".



**Udaletxeko hautagaiei luzaturiko deia**

Hauteskunde aurreko garaia dela aprobetxatuz, Udaletxeko hautagai desberdinei euren egoeraren berri emango diete merkadilloko saltzaileek eta horren aurrean, posizionatzeko eskatuko diete.

## [ ZENBAKIA ] 236.570

Foru Aldundiak 236.570 euro bideratuko ditu San Pedro kaleko etxebizitzetan espaloi eta arrapala berriak egiteko. Espaloiak 78 metro izango ditu luzeran eta 2 zabaleran. Arrapalak berriz, 7 atseden gune izango ditu pisuetara erraz iristeko.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Azken bi asteotan erabat aldatu da Plaza Txikiaren egoera. Autoz gainezka egoten zen lehen, asko gaizki aparkatuta eta ez zen batere erraza hemen aparkatzea. OTA martxan jarri zenetik, ingurune hau izugarri lasaitu da. Beti dago aparkatzeko lekua, hori bai, denbora mugatua da eta ezin da ordu eta erdi baino denbora gehiago utzi autoa bertan. Gainera, tiketa jartzea derrigorrezkoa da, ohitura bilakatuko da botoi berdeari ematea. Aldekoak eta kontrakoak izan ditu ekimen honek. Denen gustua egitea ez da erraza.

# Deba ibaia garbitzeko eta ura aurrezteko proposamenak egin ziren pleno txikian



Eskolako Agenda 21 egitasmoaren barruan, pleno txikia izan zen joan zen astean. Udaletxeko Pleno Aretoa ikasleek bete zuten oraingo honetan. Ikastetxean ura eta Deba ibaiaren gaia landu dute, eta horri buruzko proposamen desberdinak luzatu zizkieten udaletxeko agintariei. Deba ibaia garbitzeko eta ura aurrezteko ideia desberdinak azaldu zituzten. Besteak beste, Elgoibarko neska-mutilek herritarrak kontzientziatzeko eta informatzeko kanpaina bat bultzatzeko eskatu zuten. Inbiria sanoa emate aldera, orain dela mende erdi gure ibaiak zer nolako aberastasuna zeukan erakutsiko duen erakusketa antolatu eta gaur egun daukagun faunari eta landareeei buruzko panelak jartzeko proposamena ere egin zuten. Era berean, ahal den neurrian, ibaiaren ertzak herritarren aisialdirako berreskuratzeko proposamena luzatu zuten.

### Eskaerak betetzeko konpromisoa

Udaletxeko agintariek ikasleek eginiko galdera guztiak hartu zituzten kontuan, eta pleno txikian egin ziren proposamen guztiak, "ahal den neurrian" betetzen saiatuko zirela ziurtatu zuten.

## Hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu zuen EAk



Jon Peli Uriguen, EAko alkatetzarako hautagaiak, Udal Hauteskundeetarako zerrendaren aurkezpena egin zuen, Angeles Ortuoste eta Rafael Larreinaren babesean. Hauek dira gainontzekoak: Nekane Ortuoste, Iñigo Zearsolo, Miren Arrate Arrieta, Angeles Ortuoste, Eduardo Urain, Itziar Goñi, Alex Arrieta, J.M. Konde, Edurne Gabilondo, F.J. Juaristi, Karmele Gabilondo, Ainhoa Goronaeta, Aitor Gabilondo, Nikolas Etxabe, Arantxa Landa, Amaia Murua, Gorka Mir, Jesús Mª Garcia, Pilar Zabala.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Helduen Alfabetatze Eskolako aurrematrikula zabalik

2007-2008 ikasturterako aurrematrikula epea irekita dago Helduen Alfabetatze Eskolan. Besteak beste, alfabetizazioa, atzerritarrentzako ikastaroak, kultura orokorra, Bigarren Hezkuntza graduatua lortzeko ikastaroak, euskara eta ingelesa hizkuntzen oinarrizko maila eta informatikaren lehen urratsak eskainiko dira. Interesatuek 943740880 telefonora deitu dezakete, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.

### Zaharren egoitzan egonaldiak

Uda garaian zaharren egoitzan behin behineko egonaldiak egiteko eskaera epea zabalik dago. Gipuzkoako Foru Aldundiak prestatutako egitarauaren baitan, uztaileko egonaldietan parte hartu nahi dutenek maiatzaren 15a baino lehen eman beharko dute izena. Abuzturako berriz, maiatzaren 31a baino lehen. Egun horietatik aurrera jasotzen diren eskabideak hutsik gelditzen diren lekuen arabera banatuko dira.

### Ikasketa gela

Maiatzaren 12tik aurrera ikasketa gela bihurtuko da Kultur Etxeko sotoa. Zapatu eta domeketan egongo da irekita, goizeko 9:00etatik gaueko 21:00etara.

### Mendaroko EA aurkeztuko da hauteskundeetara

Mendaroko Eusko Alkartasunak zerrenda osatzeko zailtasunak izan zituela eta ez zela hauteskundeetara aurkeztuko argitaratu genuen joan zen asteko alean. Azken momentuan zerrenda osatzea lortu dutela jakinarazi digute, beraz, Udal Hauteskundeetan izango dira. Rosa Urain, Gregorio Vives, Aranzazu Korta, Nuria Ansuategi, Trinidad Urbieta, Ramón Iriondo, Esti González eta Aingeru Gallastegik osatzen dute zerrenda.

Bi aste daramatza martxan Plaza Txikiko OTAk.

# Igarri al duzu aldaketarik Plaza Txikiko OTA martxan jarri denetik?

**J.M. EGUREN**
Delineantea
55 urte



❝Ez dut kotxea asko erabiltzen herrira jaisteko. Dena dela, Pista Beltzean kotxe gehiago dagoela igarri dut. Plaza Txikia lasaiago dago, baina inguruneak bete dira.❞

**ANA EGIGUREN**
Kalitate arduraduna
46 urte



❝Bai. Astean behin etortzen naiz hona eta orain aparkatzeko leku gehiago dago. Nire lanetarako ordu eta erdi nahikoa da, beraz, ondo moldatzen naiz.❞

**ENERITZ GURUNZA**
Sukaldaria
32 urte



❝Bai, aparkatzeko arazo gehiago dago. Hemen inguruan egiten dut lan eta ezin dut autoa Plaza Txikian laga. Inguruetan ere aparkatzeko leku gutxiago dago.❞

**P.M. PLAZAOLA**
Jubilatua
57 urte



❝Bai, egunero etortzen naiz Elgoibarrera, eta orain arazorik gabe aparkatzen dut. Lehen ezinezkoa zen hemen kotxea uztea. Momentuz OTA hoberako izan da.❞

# [ BAI ala EZ? ]

## Nahikoa egiten al da lan istripuak gutxitzeko?

**BAI %12**

❝Baietz esango nuke. Askotan langileak dira ohitura txarrak eskuratu eta arriskuak ez ekiditzea erabakitzen dutenak. Informazioa bezain beharrezkoa da kontzientziazioa.❞

**EZ %88**

❝Ez. Lotsagarrixa da horrenbeste langille hiltzia. Hori prebentzio-neurririk hartzen ez dalako da, eta horretan ardura haundixa dake enpresarixuek.❞

Datorren asterako... Amaren Eguna izango da datorren domekan, maiatzak 6.

**Ba al daukazu Amaren Eguna ospatzeko ohiturarik?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Talasoterapia Zelai ZUMAIA

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
**Zumaiako Zelai Talasoterapian.**
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!
www.talasozelai.com

## JAIOTAKOAK



**Einer Agirregomezkorta Abotiz**
[ Apirilak 3 ]
Gorka eta Naiara



**Naroa Cerdeira Iranzo**
[ Apirilak 11 ]
Imanol eta Maria Jesus



**Nere Arregi Beitia**
[ Apirilak 20 ]
Bikentzi eta Miren

**Xabier-Asier Ramirez Fujimoto**
[ Apirilak 4 ]
Gerardo eta Fabiola

## HILDAKOAK

**Bonifacio Langrados** • [ 71 urte ] • Apirilak 1
**Jose Garitagoitia** • [ 87 urte ] • Apirilak 1
**Pakita Iriondo** • [ 90 urte ] • Apirilak 4
**Ramon Gorriti** • [ 80 urte ] • Apirilak 8
**Maria Arrieta** • [ 77 urte ] • Apirilak 9
**J. Jose Salcedo** • [ 85 urte ] • Apirilak 11
**Maria Rosario Agirre** • [ 58 urte ] • Apirilak 16
**Perfecto Babarro** • [ 83 urte ] • Apirilak 22
**Juan Uriarte** • [ 69 urte ] • Apirilak 23
**Rodrigo San Millan** • [ 54 urte ] • Apirilak 25

## EZKONTZAK

**Gaizka Iglesias** eta **Lierni Fernandez** [ Apirilak 28 ]

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora.


# ETXEBERRIA

## Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

*TANATORIOA*



*KUTXAK*
*TRASLADOAK*
*KOROAK*

**NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.**

**Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
**Tel.:** (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

*12 urtez egon da Mendaroko Talde Independientea udaletxean. Duela lau urte gehiengo absolutua lortu zuten eta agintean egon dira orain arte. Esti Gonzalez izan da alkatea, eta maiatzeko Udal Hauteskundeen ondoren, agur esango digu. Herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkie lau urte hauetan eskainitako laguntzagatik.*

## ESTI GONZALEZ MENDAROKO ALKATEA

# «Gure egin beharrekoa ondo bete dugulakoan goaz»



**• Zergatik hartu duzue politikatik aldentzeko erabakia?**
MTI sekula ez da izan ohiko alderdi politikoa. Boterea ez da sekula gure helburua izan, horregatik, nahiz eta jarrai genezakeen, bagoaz. Geure bizitza pribatua, lanpostuak eta bizitza-proiektuak berreskuratu nahi ditugu. Bagoaz, baina hemen gelditzeko, berriro herritar izateko, oraindik benetan axola baitzaigu Mendaron gertatzen dena.

**• Legealdia amaitzear dago. Zein da orokorrean egiten duzuen balantzea?**
Gure egin beharrekoa ondo bete dugulakoan goaz. Datozen lau urteak urte oparoak izango dira, lau urtetan ereindako lanaren fruituak jasoko dira. Plan Orokorra onartzen denean (urte amaiera aldera) paperean jasotakoa gauzatzeko modua izango da eta horrek Udalerako diru sarrerak ekarriko ditu. Gauza asko dago egiteke, baina bete ditugu 2003an geure buruari ezarri genizkion helburuak. Mendaro ez da jadanik Gipuzkoako udalerririk zorpetuena; alderantziz, ia erdira murriztu dugu zorra. Udalera iritsi ginenean Gipuzkoako udalerri zorpetuena ginen, %20tik gorako zorra zuen herriak eta orain %12an utzi dugu. Udala gure etxea izango balitz bezala kudeatzen saiatu gara.
Hemendik bost hilabetera beranduenez, Arau Subsidiario berriak edukiko ditugu. Horiek hazkunde iraunkor baten alde egiten dute apustu, Lurraldearen Zatiko Planekin bat.
Eta duda gabe, balantzerik positiboena, herritarren kezkak berriro ere, kaleko argia erreta izatea edota behar adina haur parke ez egotea direla da, azken finean, beti eduki behar zituzten kezka klaseak. Duela 4 urte zegoen krispazio maila jaitsi da, eta herri lasai bat utziz goaz.

> [ «Boterea ez da sekula gure helburua izan» ]

**• Zeintzuk izan dira zuen legealdiko proiekturik garrantzitsuenak?**
Zerrenda apal batean, gure ustez mendarroarrei bizitza hobetu dieten zenbait



*Duela lau urte gehiengo absolutua lortu zuen MTIk.*

jarduera aipatu ditzakegu: Santakruzkua finka erosi eta parke publiko bat sortu dugu Azpilgoetan, eta Eguneko Zentroa eraiki dugu bertan. Bestalde, nahiz eta aurreko legealdiko jarduera izan San Agustin Kultur Gunearen proiektua birmoldatu eta martxan jarri dugu, musika eskola bertan egokitzeko beharrezko lanak eginez. Gaztegunea ere martxan dago, anbulategia handitu dugu, eta nabarmentzekoa da sortu den pediatria kontsulta berria. Jubilatuen Egoitza handitu genuen, Ikastolako patioa estali eta Hezkuntza Sailarekin ikastola handitzeko akordioa lortu ere bai... Gauza asko egin ditugu, baina hala ere, beste batzuetan kale egin dugu. Alkorta eta Etxabemendiko ur hornikuntzaren proiektuan esaterako. Bi urte eman ditugu lanean, baina zoritxarrez ez dugu gure helburua lortu. Proiektua idatzi eta esleitzeko oinarriak onartu ziren, baina azken unean onuradunetako batzuek ez zeuden ados Udalaren azken planteamenduarekin. Lana garestitu egin zelako sortu zen desadostasuna, onuradunetako batzuk ez zeuden igoera hori finantzatzeko prest. Lana ez egiteak arazo ugari sortu zizkigun Debemen-ekin eta Foru Aldundiarekin, lan horri diru-laguntza emateko konpromisoa hartu baitzuten, inguruko udalerrietako beste proiektu batzuen kalterako. Aukera aparta galdu zen.

[ «Udaletxeko zorra ia erdira jaistea lortu dugu» ]

**• Zuen legealditik, zer azpimarratuko zenuke?**

Bereziki harro gaude informazioaren arloan egin dugun lanaz. Mendebalde aldizkariaren 25 aleetan herritarrei Udaleko kontuen berri eman diegu era zuzen eta ulergarrian. Horixe izan da mendaroarrei uneoro egiten ari ginena edo egin ez duguna jakinarazteko modua, arrazoiak, argudioak eta zergatiak emanez. Ondoren bakoitzak jakingo du ados dagoen ala ez, baina norberak bere iritzia eratu ahal izan du eta horixe da garrantzitsuena. Horretaz gain, iritzia adierazteko bideak jarri ditugu eskura. Horretarako dira hiritarren partehartze foroak eta agerraldi publikoak.

**• Etxebizitzen alorrean zein izan da zuen politika?**

Arlo honetan egindakoa baino zerbait gehiago egin izana gustatuko litzaiguke. Baina Udalak zuen zorrak eta etorkizuneko hainbat garapenetako aprobetxamendu urbanistikoak jada kobratuta egon izanak, asko baldintzatu du gure jarduna. Gogoa eta ideiak soberan izan ditugu, baina horiek ez dira nahikoak izan etxebizitza sozialak eraiki ahal izateko lurra erosteko. Hortaz gure lana planeamendu mailara mugatu behar izan dugu: ordenantza bidez, lokal komertzialetan eta ganbaretan etxebizitzak egiteko aukera arautu, AIU 06ko (Linazasoro) hiru etxeetatik bitan altura bat jaistea lortu, plan orokor berria...

**• Aurrerantzean herritar bat gehiago izango zara...**

Azken lau urte hauetan ere herritar izan naiz, hortan ez naiz aldatu. Erantzukizun handia izan dut, herriko kudeaketa gure ardura zelako, baina ez diot herritar izateari utzi.

DIAS DAS LETRAS GALLEGAS

# Asteburu honetan ospatuko dira "Dias das letras gallegas"



Apirilaren bukaerarekin batera, iritsi dira Galizar jaiak Elgoibarrera. Pasa den zapatuan, eman zitzaion hasiera jaiei. Arratsaldeko 14:30ean Anaiarteko bazkaria eduki zuten bazkide eta senitartekoek Urasandiko elkartean. Ondoren, arratsaldeko 17:00etan, Chaves jaurtiketa handia jokatu zen elkartearen aurrean. Baina, ofizialki, Dias das Letras galegas delakoaren inaugurazio ekitaldia, gaur arratsaldeko 19:30ean burutuko da, Aita Agirre plazan. Bertan, Maria Mariño Carouri omenaldia egingo zaio eta Galiziako produktu bereziak dastatzeko aukera izango da. Egunari amaiera biribila emateko, gaueko 22:00etan orkestra handi baten musika emanaldia izango da.

**EGITARAUA**

**Maiatzak 5, zapatua**

12:30 Galiziako jaki berezien dastaketa, Aita Agirre Plazan.
18:30 Haritz Euskal Dantzari Taldearen eta Sestaoko Fillos de galicia Gaita eta Dantza taldearen ekitaldia Plaza Handian.
20:00 Galiziako produktuen dastaketa, Aita Agirre Plazan.
20:30 Novo Estilo Orkestra
24:00 Queimada herrikoia.

**Maiatzak 6, domekia**

10:30 Hildako bazkideen aldeko meza.
11:30 Sestaoko Fillos de Galicia Gaita eta Dantza taldearen kalejira.
13:00 Sestaoko Fillos de Galicia Gaita eta Dantza taldearen jardunaldia, Aita Agirre plazan.
14:30 Bazkari ofiziala Galiziako Kultur Etxeko egoitzan.

## Elgoibarko Udal Liburutegiko XIII. Idazlan eta Komiki Lehiaketako sari banaketa

Urtero bezala, Liburuaren Nazioarteko Egunarekin batera, Liburutegiak Idazlan eta Komiki Lehiaketa burutu zuen. Pasa den astean izan zen sari banaketa eta Itziar Gurrutxaga Athleticeko jokalari elgoibartarraren eskutik jaso zituzten sariak irabazleek. Aurtengo gaia hauxe izan da: "Mozarten flauta magikoa topatu dut". Guztira, 249 haurrek hartu zuten parte. Aurkeztutako lanen artean, 161 marrazkiak izan dira eta 88 idazlanak.




## "La Espera" antzerki saioa ikusgai Haizearen eskutik

Haizea Emakume taldeak, aurten 10 urte bete ditu eta hori ospatzeko, datorren ostiralerako, maiatzak 11, ekitaldi bat antolatu du. Bi emakumezko protagonista dituen "La Espera" izeneko antzerki lana, hain zuzen ere. Parodia honek hezkuntza sentimentala du hizpide. Bi emakumezko pailazo bere printze urdinaren zain daude. Baina printze urdina ez da oraindik iritsi. Publikoa beren amets eta fantasien konfidente egingo dute eta delirioaren muturrera eramango dituzte euren desiren adierazpenak. Ironia ikutuaz tratatuko dituzte ikasiak ditugun hainbat mito: nola liluratu? Nork eman behar duen lehen pausoa? Maitasuna ala desioa? erromantizismoa, muxuak, fideltasuna, besteak beste. Saioa, doan eta Kultur Etxeko Sotoan izango da, 22:00etan. Aurrez, luntxa egongo da bazkide eta gonbidatuentzat.



AURRESKU ETA SOINU ZAHAR TXAPELKETA

# Dantzari elgoibartarrek Euskadiko Finalerako txartela lortu dute

Elgoibartar dantzariek beste behin, euren maila ona eta nagusitasuna erakutsi zuten Lezon ospaturiko dantza kanporaketan.

Txapelketa duela bi aste ospatu zen eta aurreneko postuak eskuratu zituzten elgoibartarrek. Horrela, gure herriko lau dantzarik Euskadiko nesken txapelketako finalean aritzeko txartela lortu dute. Honatx beren izen abizenak: Maria Ferreiro, Arantxa Ferreiro, Ane Espilla eta Nora Bastida.

Bestalde, Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketaren finala Legazpin izango da, maiatzaren 13an.

**Lezoko sailkapena**

7 eta 11 urte bitarteko A mailan: Ane Espillak 1. postua eskuratu zuen. Nora Bastidak eta Nerea Perezek, berriz, 4. eta 6. postuak erdietsi zituzten, hurrenez hurren. Maila honetan, 22 dantzarik hartu zuten parte. 11-15 urte bitartekoen B mailan arreta jarriz, aipatu, Maria Ferreiro sailkatu zela 1. postuan eta Arantxa Ferreiro 5. lekuan. Kategoria honetan ere, 22 dantzari lehiatu ziren.

Liga txapelketari erreparatuz, bestalde, azpimarratu, A mailan, Ane Espilla geratu dela txapeldun eta B mailan, Maria Ferreiro.



## "Lamien basoa" antzezpena izango da Herriko Antzokian



Gero Axular Dantza taldeak "Lamien basoa" antzezpena aurkeztuko digu, maiatzaren 12an, Herriko Antzokian. Musika eta dantza uztartzen dituzte, ikuskizun honetan, Gero Axular Dantza taldeko kideek. Saio honetako narraziohariak, neskato batek ametsetan, basoan ikusten dituen lami xarmangarriengana garamatza. Harik eta ilargirik gabeko gau batean, lamien ordez, izaki erraldoiak basoan ohiuka agertzen diren arte, loreak eta zuhaitzak txikituz. Bere garain, 2004. urtean, talde hau, Axular Lizeoko zenbait gurasoen ekimenez sortu zen, euskal dantzaren alorrean aurrera egiteko xedeak bultzaturik. Beti ere, kultura gorde eta zaintzetik haratago, kultura landu eta aurrerapenak egitea oso aintzat eduki dute.

Horren adierazgarri da "Lamien basoa" ikuskizuna. Gure betiko dantzak eguneratzen ditu eta beste musika mota batzuekin nahasten ditu. Guzti hau, gaur egungo teknika eta tresnak erabiliz. Emanaldi honen, zuzendaria Juan Luis Unzurrunzaga dugu.

## Egur Arte Tailerraren Akuarela ikastaroa

Egur Arte Tailerrak akuarela ikastaroa antolatu du, maiatzaren 7tik 30era arte. Ikastaroa arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara izango da. Honakoa, Elgoibarko Udalak diruz lagundutako ikastaroa da.

Bertan izena eman nahi duen orok, Egur Arte Tailerrean egin dezake (Aita Agirre plaza z/g, arratsaldeko 18:00etik 20:00etara).

## "Agian" filma ikusgai datorren ostegunean Herriko Antzokian

Datorren ostegunean, maiatzaren 10ean, gaueko 21:30ean, Arkaitz Basterra zuzendari zornotzarraren "Agian" filma eskainiko da Herriko Antzokian, Elgoibarko Udalaren eta Ongarri Zine Klubaren eskutik.

Film hau Euskal Jaien mendeurrena gogorarazteko antolatu den egitarauaren barruan kokatzen da, eta sarrera doan izango da. "Agian" filmak "Zaharregia, txikiegia agian" proiektua du oinarritzat, eta Kirmen Uribe olerkaria; Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Bingen Mendizabal musikariak eta Mikel Valverde marrazkilaria ditu protagonista.

## JOSEBA ELUSTONDO MENDIZALEA

# «Nire pasioak uztartzeko aukera eskaintzen didan medioa da mendia»







*Joseba Elustondo elgoibartarrak "Kun Mendia" espedizioaren nondik norakoak azalduko ditu, maiatzaren 9an, Morkaiko M.E.ak antolaturiko mendi emanaldien baitan. Saioa Musika Eskolan izango da, 21:30etan hasita. Honatx mendizale elgoibartarra gertuagotik ezagutzeko gonbitea.*

**Noiz ekin zenion mendiak egiteari?**

Txikitatik nire bizitzaren zati bat izan da. Nahiz eta etapa bakoitzean modu eta intentsidade desberdinetan azaleratu, nik uste progresio logiko bat izan dela 15 urteko lehen eskaladetatik, gaur egungo mendi igoeratara.

**Zein mendik utzi dizu aho zaporerik gozoena eta garratzena?**

Igoera edo mendi bakoitzak bere oroitzapenak uzten dizkizu. Argi dagoena da, altuera edo zailtasun handikoek ez dutela zertan oroitzapen hoberik utzi behar. Oroitzapen onak utzirikoen artean, Erlo aipatuko nuke eta txarren artean, bestalde, Rognon du Ger.

**Zer nolako esperientzia izan zen Aste Santuan, Chamonix-Zermattera mendi eskiekin bururuturiko trabesia?**

Bizipen eder bat. Zorte izugarria izan genuen eguraldiarekin eta baldintzak alde izanda oso azkar egiten dira kilometroak, batez ere aldapa behera. Bideak ez du zailtasun tekniko handirik. Paisaia eta lekuak politak dira orokorrean, bertan bizitako esperientziek ematen diote leku horri berezitasuna. Bat aipatzekotan Valpellineko lepoa, azkenengo igoeraren bukaera eta 2.000 metroko jaitsieraren hasiera.

**Eskaladan ere ibilitakoa zara...**

Bai eta jarraitzen dut. Zenbait eskalada aipatze aldera, Riglos edo Ordesan eginikoren bat azpimarratuko nuke.

**Zein dira "Kun Mendiaren" (7.077 metro) ezaugarri eta zailtasun nagusiak?**

Indiako iparraldean dagoen Jammu&Kashmir probintzian kokatzen da, Ladakh-eko zonaldean, Zanskar mendikatean. Ez du zailtasun tekniko handirik, glaziar ibilbidea da eta glaziarretan topa ditzakegun zailtasun eta arrisku tipikoak dira bertan aurkitu genituenak, eta noski altueraren eragina. Gure asmoa, bide ohikotik igotzea izan zen eta jende gehienak hemendik igotzen du. Ezezaguna izateak, bigarren plano baten mantendu du, horregatik agian ez du igoera bide askorik.

**Zenbat denbora behar izan zenuten igoerako joanean?**

Kanpamendu nagusian 15 egun pasa genituen, horietatik 7-8 egunetan mendian ibili ginen. Eguneko ordu batez bestekoa, berriz, oso aldakorra izan zen, 5-10 ordu bitartean. Oroitzapen oso onak utzi dizkidaten momentu ugari ditut gogoan. Esaterako, 2. kanpamendura iristeak emozio izugarria eragin zidan, beste mendi askoren tontorra zapaltzeak baino gehiago, agian.

**Epe motzerako asmorik?**

Mendia nire pasioak uztartzeko aukera eskaintzen didan medioa da eta disfrutatzen dudan bitartean, mendian ibiltzen jarraituko dut. Momentuz, egunerokoaz gain, ez dut plan berezirik.

**[ «Disfrutatzen dudan bitartean, mendian ibiltzen jarraituko dut» ]**

URGAZI TRIATLOI TALDEA

# Urgazi Triatloi taldeak pasa den ostiralean egin zuen aurkezpen ofiziala

Aurtengoan 19 kidek egin dute lizentzia Urgazi Triatloi Taldearekin. Guztira, 5 neska eta 14 mutil dira kirol talde honetako partaideak. Guztiak ere, bizikletan, korrika eta igerian ibiltzen diren arren, lehiatzeko garaian, oso helburu desberdinak dituzte. Triatloietan eta duatloietan ez ezik, bestelako bizikleta eta korrika lasterketetan ere arituko dira Urgazikoak. Gainera, aipatu beharra dago, aurten herriko zenbait elkarteren (Txarriduna Hotela eta Olaizaga Kiroldegia) babesari esker, arropa berria ere, egin dutela.



### Urgazi Taldearen bloga

Iaz jarri zuten abian euren blog propioa eta bide batez, jendeari dei egin nahi diote lasterketaren batean edo bestean parte hartzen badute, informazioa bidali diezaieten blogera. Modu honetan, Urgazi Triatloi taldearen atarian kirol ekitaldi eta proba desberdinen zein emaitzen informazio eguneratua ikusgai eta kontsultagai egon dadin.

## [ EMAITZAK ]

**FUTBOLA**

Haundi 2 - Basconia 3
Sanpedrotarrak 0 - Elgoibar 6 (erreg.)
Mondragon 3 - Elgoibar 1 (jub.)
Hernani 1 - Elgoibar 0 (o. infant.)
Elgoibar 0 - Orioko 1 (kad.)
Elgoibar 2 - Urola 3 (aleb.)

**ARETO FUTBOLA**

Kenci 9 - Lagun Onak Galdakao 5 (Euskal Liga)
Goierri 5 - Kenci 2 (2. mail. gipuzk.)
Anoetako Gazte Asanblada 2 - Relojes Mondaine 7 (jub. gipuzk.)
Elgoibar 4 - MCM 6 (jub. gipuzk.)

## [ AGENDA ]

**Zapatua, 5**
10:00 Elgoibar – S. T. Lizeo (o. inf.)
11:45 Elgoibar – Beti Gazte (kad.)
13:45 Elgoibar – Beti Gazte (jub.)
15:45 Elgoibar – Beti Gazte (neskak)
17:45 Elgoibar – Beti Ona (erreg.)
**Domekia, 6**
16:30 Elgoibar – Hernani (Inf. txiki)

## Elgoibarko mendi itzulia maiatzaren 20an izango da

Irekita dago Elgoibarko Itzulian izena emateko epea. Itzulia maiatzaren 20an egingo da, Elgoibarko mendietan zehar. Irteera goizeko 6:00etan izango da eta urteroko ibilbide bera beteko dute partaideek, guztira 38 km. Ibilbidea egin ondoren, Merkatu Plaza gainean bazkari eder bat dastatzeko aukera izango dute parte hartzaile guztiek. Horrez gain, bidean zehar indarberritzeko 2 gune egongo dira. Izena eman nahi duen orok, Morkaiko M.E.ren lokalera jo dezake, astelehen eta ostegunetan (19:00-20:30). Plaza mugatuak dira, beraz izena lehen bailehen ematea gomendatzen dute, antolatzaileek. Izena aurrez emanez gero, bazkideentzeko prezioa, 7 eurokoa da eta bazkide ez direnentzat, berriz, 10 eurokoa. Egunean bertan izen ematen duten bazkideek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta besteek15 euro.




## Igeriketa Egunean 200 haur elkartu ziren Kiroldegiko igerilekuan

Pasa den apirilaren 20an, Olaizaga Kiroldegian ospaturiko Igeriketa Egunean, 5-14 urte bitarteko 200 haur bildu ziren. Jokaturiko probak, berriz, 50 metro libre eta erreleboak izan ziren. Giro paregabea izan zen bertan.

## Tecnifuelle

Tecnifuelle senior mutilen eskubaloi taldeak, astebukaera honetan, igoera faseko partiduak jokatuko ditu Colindresen (Kantabrian). Hona hemen, elgoibarko mutilek izango dituzten norgehiagokak:

- Maiatzak 4: Calasancio (Errioxako txapeldunak) - Tecnifuelle (Euskadiko txapeldunak)
- Maiatzak 5: Tecnifuelle - Colindres (Kantabriako txapeldunak)
- Maiatzak 6: Seis do Nadal (Galiziako txapeldunordeak) - Tecnifuelle

Bestetik, pasa den larunbatean, apirilak 28, Jose Migel Virtok, Euskal Eskubaloi Federazioko Zuzendari Teknikoak, Euskadiko Txapeldunen trofeoa eman zien Tecnifuelle taldekoei.

Eskubaloiarekin jarraituz, esan, Olalsa, infantil nesken taldeak, bihar, zapatua, Gipuzkoako txapelketako final aurrekoa jokatuko duela Leizaranen aurka. Norgehiagoka Zumaiako Kiroldegian izango da, 12:15ean. Finalerako txartela lortuz gero, Espainiako txapelketarako sailkatuko dira.

# Merkatua

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- Etxea salgai Urasandin. Bizitzera sartzeko. Duplex. 94m2. Egongela, sukaldea, 3 logela, komuna, bainugela, despentsa, berogailua, dena kanpora. 237.399 euro/39, 5 milioi pezeta. ☎ 943740865
- Etxea salgai Urasandin. Eguzkitsua, berritua, bista ederrak, dena kanpora. 4 logela, bi komun, egongela-jangela, sukaldea, trastelekua. ☎ 943740864
- Etxea salgai erdialdean. 3 logela, egongela, bainugela eta sukalde-jangela. 120m². Gas naturala. 60m²ko ganbara. ☎ 943741769
- Etxea salgai San Roken. Eguzkitsua, erabat berritua. 3 logela, egongela, sukaldea. 2 komun eta arropa esekilekua. Garajea eta ganbara. ☎ 943740194
- Urruzunon etxea salgai. Bizitzera sartzeko prest. Prezioa eta irudiak ikusteko: www.esnips/web/etxepolita.com ☎ 660884060
- Etxea salgai Sigman. Bizitzera sartzeko. Bista onak. Balkoia, sukaldea, egongela, komuna, 3 logela. ☎ 676623114

### ALOKAIRUA

- Logelak ditut alokatzeko. ☎ 943744329
- Logela alokatzen dut. ☎ 943741881/635206436
- Bi logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 699486458

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- Marradun garajea alokairuan herri erdi-erdian, Santa Ana 2an. ☎ 943743427
- Garaje itxia alokatzen da Santa Klaran. ☎ 628764686
- Garaje marraduna alokatzen dut Pista Beltzean. ☎ 665735660
- Garaje itxia alokatzen da Leku Ederren. ☎ 652771184

## [ AUTOAK ]

- Hyunday Pony autoa salgai. 151.000km. Egoera oso onean. ☎ 665714728
- Renault Clio 1.5dci autoa salgai. 2004koa, 5.100km. Egoera onean, beti garajean. ☎ 686762146

## [ BESTELAKOAK ]

- 2. eskuko bizikleta erosiko nuke. ☎ 653733217
- Izozkailu horizontala salgai. 1,65m. Erabili gabea. 180 euro. ☎ 943742306

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro . Eta bestelakoak 5 euro . Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako prest. ☎ 607780679 (Reina)
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko prest. ☎ 606169667
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako prest. ☎ 671476869
- Emakumea garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. Egunez. Esperientzia. ☎ 636120425
- Mutila igeltsero lanetarako prest. ☎ 6620263424
- Pertsona kamarero edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest. ☎ 649368137
- Neska umeak, nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ 697431326
- Mutila lanerako prest. ☎ 638465098
- Emakumea umeak edo nagusiak zaaintzeko prest. ☎ 628529252
- Eraikuntzako 2. mailako ofiziala lanerako prest.. ☎ 661225149
- Mutila kamarero, igeltsero zaintzaile edo garbiketetarako. ☎ 650813847
- Emakumea garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ 667709439
- Neska umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketetarako prest. ☎ 666110602
- Neska umeak zaintzeko prest. Esperientzia. ☎ 627437179
- Neska lanerako prest. ☎ 699813826
- Mutila igeltsero, enkofradore edo seguritate lanetarako prest. ☎ 943172896 (Iosu)
- Neska lanerako prest. ☎ 667806119
- Emakumea egunez edo gauez lan egiteko prest. ☎ 943172896 (Mertxe)
- Biokimikan lizentziatuak klase partikularrak ematen ditu. Mate, fisika, kimika, ingles, biologia... ☎ 675703356 (Nerea)
- Neska garbiketa lanak, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 650817847
- Mutila peoi edo garbiketetarako prest. ☎ 679759349
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 679759349
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 648835924
- Mutila umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 647190246
- Karaokedun mutila tabernetan lan egiteko prest. ☎ 671171503
- Emakumea umeak, nagusiak zaindu, garbiketak egin, kamarera... Esperientziaduna. ☎ 638527915/943530132
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest egunez eta gauez. Esperientzia. ☎ 675711658
- Emakume euskalduna gaixoak zaintzeko prest arratsaldez edo gauez. ☎ 626438248
- Mutil gaztea pintore, igeltsero edo kamarero lanetarako prest. ☎ 610632782
- Emakumea lanerako prest. ☎ 671343612
- Emakumea ostalaritzan edo garbiketa lanerako prest. ☎ 666032715
- Neska garbiketa lanak egin edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest. ☎ 638527915
- Bi gizon igeltsero, garbitzaile, zaintzaile lanetarako prest. ☎ 638494501
- Esperientziadun emakumea umeak, nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ 638515953
- Mutila lanerako prest. ☎ 654604798

### ESKAINTZA

- Kamareroa eta sukaldari laguntzailea behar dira. ☎ 620810120
- Kamareroa behar da astebururetarako. ☎ 943531771
- Soraluzeko tabernarako kamareroa behar da. ☎ 652772275
- Kamareroa behar da tabernarako. Kontratuarekin. ☎ 670250429
- Sukaldari laguntzailea eta garbitzailea behar dira. ☎ 943127334
- Mendaroko kafetegi batean sukaldaria eta sukaldari laguntzailea behar dira. ☎ 943030150
- Bitxiak, barruko erropak eta edergintzako produktuak saltzeko pertsonak behar dira. Ez da esperientziarik behar. Irabazi onak. ☎ 607824892

## ABISUAK

- 1957an jaiotakoen kinto bazkarirako dirua sartzeko azken egun maiatzaren 11a izango da.
- Nintendo-a galdu nuen hilaren 28an Plaza Handian. Saritu egingo da. ☎ 600897610 (19:00-22:00)
- Urrezko belarritakoak ahaztu nituen kiroldegian, ilea lehortzeko tokian. ☎ 635739207
- Hozkailua hartuko genuke lokalerako. ☎ 627104915
- Giltzak aurkitu ditut Arrateko bidean. Labana bat dute zintzilikatuta. Udaltzaingoan daude.
- Giltzak aurkitu ditut San Lorentzora bidean. MNG txapita bat dute. Udaltzaingoan daude.
- Apirilaren 13an raketa bat aurkitu genuen San migeleko frontoian. ☎ 685767053
- Batxilergoko matematika klase partikularrak hartuko nituzke. ☎ 943744394

# [ZORIONAK]



Zorionak **Miren!** Oso ondo pasatu genuen zure 2. urtebetetzean. Muxu potolo bat Ikastolako laguntxoen partez.



Zorionak **Ane,** gure erregina, zure 4. urtebetetzean. Familiakoen eta bereziki, Malen, Irati, Lorea, Julen eta Danelen partez.



Zorionak **Olatz** hilaren 7an 5 urte egingo dituzulako. Anaia Aitor, lehengusu Ion, Asier, Unai, Garazi eta familiakoen partez.



Zorionak izeko! Asko maite zaitut.



Zorionak **Maria** zure 5. urtebetetzean. Gurasoen eta anaia Ionen partez.



Zorionak **June** aprilaren 7an 3 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.



Zorionak **Maialen** 13 urte egin dituzulako! kontuz zenbaki horrekin. Etxekoen eta koadrilakoen partez. Egun ona pasa!



Zorionak **Iker** zure 5. urtebetetzean. Muxu handi bat denon partez.



Zorionak **Unai** hilaren 1ean 9 urte egin zenituelako. Familiakoen, lagunen eta bereziki, Aneren partez.



Azkenean 6 urte! Muxu potolo bana familiakoen, eta bereziki, etxeko txatxarren partez. Zorionak neska haundi!



Zorionak **Marina** hilaren 7an 6 urte egingo dituzulako. Ahizpa Celia eta Jara, eta lehengusina Maria eta Ireneren partez.



**Laida Irigoien eta ama Txus** zorionak zuen urtebetetze egunean. Muxu handi bana. Aitxitxa, amama eta Andoni.



Bihar 3 urte beteko dituzten **txatxarrei**, zorionak!! Ahizpa Nerea eta familia osoaren partez.

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

Bulego berriaren
**INAUGURAZIOA**
Maiatzak 11, 19:00etan

Ermuaran bide, 11
Tel.: 943 53 18 47 - Mobila: 647 463 436

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a
Idama



Apirileko irabazlea:
**MªJESUS IRURETAGOIENA**

Maiatzean
**ILE ETA GORPUTZERAKO BRONTZEATZEKO PRODUKTU-GAMA OSO BAT**
**zozketatuko dugu**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

# Zerbitzuak

## [ OKINDEGIA ]




6 igandea FOTERO

## [ FARMAZIAK ]

**GUARDIA** 24 ORDUZ

| | |
|---|---|
| 4 | Yudego |
| 5 | Zabaleta<br>*(* Goizez Bidasolo)* |
| 6 | Zabaleta |
| 7 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 8 | Ibañez |
| 9 | Bidasolo |
| 10 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 11 | Fernandez |

** Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ TELEFONOAK ]

| **OSASUNA** | |
|---|---|
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |
| **UDALA** | |
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Hirigintza | 943 74 43 84 |
| Epaitegia | 943 74 16 30 |
| Haziena | 943 74 44 14 |
| Mendaroko Udala | 943 03 32 82 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Debemen | 943 74 40 67 |
| **GARRAIOAK** | |
| Eusko Trenbideak. | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| Bizkaibus | 902 222 265 |

| **BESTELAKOAK** | |
|---|---|
| BARREN astekaria | 943 74 41 12 |
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gazte Informazioa | 943 74 14 61 |
| KZ gunea | 943 74 88 28 |
| **ADINEKOEN ETXEAK** | |
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |
| **IKASTETXEAK** | |
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I.M.H. | 943 74 41 32 |
| Institutua • Arreiturre | 943 74 80 19 |
| •Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |

## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**
Astegunak:
7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 15:40, 16:00, 18:45, 20:00, 20:45
Larunbatak:
7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 18:45, 20:00
Igandeak eta jaiegunak:
9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00, 20:45
***Pesa: 902 10 12 10***

**DONOSTIA - ELGOIBAR**
Astegunak:
7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak:
8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak:
12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
***PESA: 902 10 12 10***

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak:
6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak:
7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.
***EUSKOTREN: 902 543 210***

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**
Astegunak:
6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak:
7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
***EUSKOTREN: 902 543 210***

**LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK**
***EUSKOTREN: 902 543 210***

**ELGOIBAR-DEBA**
1:05, 2:35, 4:35, 6:05

**DEBA-ELGOIBAR**
12:10, 1:55, 3:40, 5:25

**ELGOIBAR-EIBAR**
12:25, 2:10, 3:55, 5:40

**EIBAR-ELGOIBAR**
1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## [ 4 BARIXAKUA ]

**17:30 KIRIBILKA PROGRAMA**
2 urtetik 6 urtera bitarteko haurrentzat
Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

**22:30 "MORAU"REN KONTZERTUA**
Kultur Etxeko sotoan
Antolatzailea: Madalako Jai Batzordea

## SINOPSIAK

**«El último rey de Esco**



## [ 5 ZAPATUA ]

**11:30 ATXUTXIANTXINTXIKETAN**
Haur Krosa Haur Hezkuntzako haurrentzat
Antolatzailea: Atxutxiamaika aisialdi taldea

**11:30 IMH INGENIARITZA ESKOLAKO ATE IREKIAK**
Informazio saioa
IMHko Karakate gelan

## [ 9 EGUAZTENA ]

**21:30 UDABERRIKO ASTEAZKENETAN MENDI EMANALDIAK**
"Kun" mendia
Hizlaria: Joseba Elustondo elgoibartarra
Musika Eskolako auditorioan
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

## [ 11 BARIXAKUA ]

**17:30 KIRIBILKA PROGRAMA**
2 urtetik 6 urtera bitarteko haurrentzat
Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

**22:00 "LA ESPERA" IKUSKIZUNA"**
Taldea: Oihulari Clown
Kultur Etxeko sotoan
Elebietan
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

### OHARRA

Bihar, maiatzak 5, larunbata, astero bezala, 19:30ean, zinea dago Herriko Antzokian, El último rey de Escocia. Baina euria egingo balu, saio hau bertan behera geratuko da, Galiza Etxekoen Semana das letras Galegas jaien barruan antolatutako dantza saioa Herriko Antzokian izango baita.

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN




**«El último rey de Escocia»**
4, barixakua: 22:15
5, zapatua: 19:30-22:15
6, domekia: 19:30-22:15
7, astelehena: 21:30
**«Agian» (Z.K. eta Euskara Saila)**
10, eguena: 21:30
**«El buen pastor»**
11, barixakua: 22:15

**EIBAR,** UNZAGA
**«Spiderman III»**
4, barixakua: 19:30-22:15
5, zapatua: 17:00-19:30-22:15
6, domekia: 17:00-19:30-22:15
7, astelehena: 19:30-22:15
8, martitzena: 19:30-22:15
9, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

### cia»

**Zuzendaria: Kevin Macdonald.**
**Antzezleak: Forest Whitaker, James McAvoy.**
Fikzioa eta benetan gertatutako jazoerak uztartuz, Idi Amin, 70. hamarkadan Ugandako diktadore basati eta gupidagabea izandakoaren erretratua egiten saiatu da Kevin MacDonald ("Touching the void") dokumental egile ezaguna, fikziozko estreinako lanean. Kasualitatearen poderioz Ugandan amaituko duen mediku gazte eskoziar baten begien bitartez erakutsiko digu ia bi metroko diktadorearen ankerkeria mugagabea. Forest Whitakerrek aktore onenaren Oscar Saria irabazi du diktadorearen rola antzeztearren.

### «Agian» (Zine Kluba)



**Zuzendaria: Arkaitz Basterra**
**Dokumentala**
Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Bingen Mendizabal eta Mikel Valverde dira film dokumental honetako protagonista, denek elkarlanean sortu zuten "Zaharregia txikiegia agian" izeneko proiektuarekin batera. Agian, akaso, apika, beharbada. Maybe. Ezer ez da absolutua Arkaitz Basterra zinema zuzendariaren esanetan. Horregatik bere lehenengo luzemetraian erantzunak eman beharrean, galderak dakarzkigu. Musika, poemak eta marrazkiak tartekatzen ditu Agianek.



**1947**. urte inguruko erretratu zahar hau **Lucia Zabalak** laga digu. Bere despedida egunean ateratako argazkia da. Lagun mordoa bildu ziren egun honetan. Dotore-dotore jantzi eta egun polita pasatu zutela kontatu digu. Lehengo despedidak ez zeukaten gaur egunekoen antzik, baina giro onean egiten ziren. Lagun arteko bazkari ederra egin zuten hauek ere. Gogora ditzagun zein diren erretratuan ageri diren neska hauek.

Goian, ezkerretik eskumara: **Ezezaguna, Ascension Etxaniz (†), Juanita Unanue, Crucita Gorostiza, Jasone Vallejo (†), Zorion Gorostiza.**

Bigarren ilaran: **Julita Gabilondo, Luz Abascal (†), Anjelita "Andikano" (†), Julita Aranberri (†), Karmen Zengotita (†), Isabel Alegria, Lola Arrese, Loreto Zubizarreta (†).**

Beheko ilaran: **Miren Vallejo, Alicia Marcos, Mari Karmen Zabala (†), Mari Karmen Elorza, Lucia Zabala, Elena Intxausti, Pili Zabala, Maite Zabala eta Maria Luisa Iturralde.**



## ESKERTZA

2007ko apirilaren 26an, Lekeition, 65 urte zituela hil zen
***Gloria Galdos San Martin***en sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

nolako ikasketak,
halako etorkizuna

Sain Milena Lopez eta Urko Lopez

Industria Diseinuan Ingeniaritzako ikaslea. Hiri-altzariei buruzko proiektua Fagor taldeko Proiek:: Habitat & Equipment enpresan.

*"Berrikuntzaren kudeaketarako softwarea diseinatzen dugu"*



www.mondragon.edu/etorkizuna

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Etxekit**
Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

**Ezenarro arotzerixia**
Era guztietako arotz lanak
☎ 653 707 837

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso Leihoak**
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia
3. zenb.
☎ 943 74 34 90

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94

## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

**Javi**
Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

**Ongi**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Zaldua**
Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055
☎ 943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Indusketa lanak

**Lekunberri indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98
☎ 629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com